OÑATIKO LORATEGI ETA BERDEGUNEETAKO MANTENTZE-LANEN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN HELBURUA ETA EREMUA

Baldintza Teknikoen Agiri honen helburua da Oñatiko udal lorategiak, berdeguneak, parkeak eta paseatzeko zuhaiztiak kontserbatzeko eta mantentze-lanak egiteko izan behar dituen ezaugarri espezifikoak zehaztea.

Kontratuak jasotzen dituen eremuak honako hauek dira:

- Oñatiko berdegune publiko guztiak
- Kiroldegiko igerilekuko kanpoko berdegunea
- San Martin zuhaiztia
- Santa Lutzia zuhaiztia
- Usako
- Olakuako urmaela
- Auzokonpost-guneak
- Udal hilerriko lorezaintza lanetarako errefortzua
- Urgain herri eskolako berdegunea

Mantendu beharreko berdeguneak osatzen duten eremuen zerrenda eta planoan neurtutako azalera Udalaren inbentariotik lortu da. Inklinazioa duten eremuak planoan neurtu dira, malda kontuan izan gabe. **1. ERANSKINA**

2. MANTENTZE-LAN MAILAK

Udalak honako mantentze-mailak ezarri ditu:

A eremua) Mantentze-lan intentsiboa behar duten berdeguneak

B eremua) Mantentze-lan arrunta behar duten berdeguneak

C eremua) Noizbehinkako mantentze-lana behar duten berdeguneak

Mantentze-lan intentsiboa: Erdiguneko loralekuak, oinezko asko dabiltzan eremuak, eremu enblematikoak eta biribilguneak izango duten lan-maila izango da. Soropilen kasuan urteko 15 mozketa izango duten eremuak.

Mantentze-lan arrunta: Erdiguneko eta hirigunean dauden auzoetako berdegune gehienek izango duten lan-maila izango da, aurreko mailan ez daudenak. Urteko 10 mozketa.

Noizbehinkako mantentze-lana: Gelditzen diren berdeguneek eta landa-auzoek izango

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

dutena, mantentze-lanen maiztasuna aurrekoena baino txikiagoa dutena. Urteko 3 mozketa.
Olabarrieta eta Zubillaga landa-auzoetan hirilurra dagoenez, berdeguneetan mantentze-lan arrunta egingo da.

Kontratua burututakoan, interes publikoko arrazoiak direla medio, klausula honetan aurreikusitako kasuetan edo artikulu honetan ezarritako kasuetan eta mugekin bakarrik egin ahal izango dira aldaketak. SPKL, 205.

Adjudikaziodunak bere gain hartu beharko ditu, kontratuaren xedearen barruan, parke sortu berriak, berdeguneak eta zuhaiztiak, baldin eta, obra berria dela eta, handitzeak, urbanizazioen harrerak edo era guztietako erosketak direla eta, udalaren mantendu beharreko jarduera-azalera handitzen bada. Aldaketa hauek ez dute inoiz ekarriko kontratuan aurreikusi gabeko unitateko prezio berririk ezartzea.

3. MANTENTZE-LANAK

Hemen jasotzen diren lan guztien deskribapen laburra egiten bada ere, erreferentzia moduan hartuko dugu beti, bai lan hauek egiteko bai akats baten ondorioz aipatu barik utzitako lanak egiteko, Lorezaintzako eta Paisajismoko Arau Tenologikoetan (NTJ) jasota dauden xedapenak, Parke eta Lorategien Espainiako Elkarteak (AEPJP) argitaratzen dituenak eta horiei buruzko gainerako arauak.

Nahitaez bete beharko dituzte mantentze lanen deskripzioari dagozkion koadroak, **2. ERANSKINA**

Berdeguneen mantentze-lanak egiteko honako baldintzak beteko dira:

3.1 Garbiketa

Lehiaketako helburu den guneetako berdeguneetan uzten dituzten hondakin guztiak, landare hondakinak eta landare hondakinak ez direnak, batzea da garbiketa, eremu horiek beti egon daitezen egoera onean, erabiltzeko eta ikusteko.

Azpimarratzekoa udazken-negu partean egin beharreko hostoen bilketa.

Landare hondakinak utziko dituzte konpost-guneetan, inongo beste hondakin motarik gabe eta landare hondakinak ez direnak, gaika jasoko eta utziko dituzte hartarako adierazitako tokietan.

3.2 Soropilak moztea

Behar den beste maiztasunez moztuko dute belarra, altuera larregi hartu ez dezan belarrak, apain mantendu dadin lorategia eta osotasunean kaltetu ez dadin soropila, kontuan izanik mantentze laneko kategoria guztiak; horietan finkatuta dago zein den gehienezko altuera eta hileko gutxieneko maiztasuna.

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

EREMUA	Ur	Ots	Ma	Ap	Mai	Ek	Uzt	Ab	Ir	Urr	Az	Ab	Guztira	Altuera
A		1	1	2	2	3	2	1	2	1			15	10 cm
B		1	1	1	1	1	1	1	1	1		1	10	15 cm
C			1		1		1						3	25 cm

Belarra moztu behar dute mozketa garbi batez, urradurarik gabe, eta horretarako, hortzak behar bezala zorrozturik daudela egiaztatu beharko dute.

Mantentze-lan intentsiboa duten soropiletan, urtean gutxienez 15 mozketa emango dira eta moztutakoa bertan utziko da, mulching-a eginez. Honela soropila batu eta garraiatzearen gastua saihestuko da.

Soropila jaso behar den kasuetan, egunean bertan jaso beharko da eta adjudikaziodunak espresuki honetarako izango dituen konpost-guneetara eraman.

3.3 Soropiletako beste lan batzuk

Adjudikaziodunak beharra ikusten duenean, lurzoruaren egoerak eta soropil estalkien egoerak eskatzen dutenean, beharrezkotzat jo ahal izango dituzte beste lan batzuk egitea: bazkatzea, areatzea, sakon aireatzea,...

Eskaintzan zehatz-mehatz adieraziko dituzte egin beharreko ordezko eragiketak eta zein eremutan jotzen duten beharrezko eta zein baliabide erabiliko dituzten.

3.4 Ureztatzea

Udalak urtero ezarriko ditu eremuetako ureztatze irizpideak eta hala adieraziko dio azpikontratari.

Denboraldiko lore ureztatzea, landare bizikorrak, zuhaixkak eta zuhaitzak lehentasuna eta nahitaezkoak izango dira, landare horiek kaltetu ez daitezen. Arau orokor moduan, berdeguneetan jarritako ureztatze automatikoko sistemen bidez ureztatuko dute eta ez badago, beste sistema bat erabili ahal izango dute.

Adjudikaziodunak behar direnak eskuz ureztatuko ditu.

3.5 Ertzak profilatzea edo ebakitzea

Soropil eremuko mugetan eta belarrak hartu ez ditzan bideak, zuhaixkak eta urteko loralekuak eta landare bizikorrak, ertzak mozteko lana egin beharko dute. Edozelan ere, profilen oraingo trazatua mantendu egingo du, betiere besterik adierazi ezean.

Lan hori noizbehinka egingo dute eta gutxienez urtean birritan.

3.6 Jorratzea

Jorratze lanaren helburua da landareen inguruko belar txarrak kentzea. Jorratzea eskuz egingo da gutxienez urtean birritan, landaretza dagoen leku guztietan.

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

Jorratze kimikoa (herbizidak aplikatuz egindakoa) ez dago onartuta eta Udalak zein kasutan salbuespenak egingo diren erabakiko du.

3.7 Urratze lana

Urratze lanaren helburua da lursailaren egitura ona egoki mantentzea, aitzurketaren sakonera izango da 5-10 cm ingurukoa, eta kasu batean ere ez dio eragingo sustrai sistemari.

Zuhaitz-txorkoko zuhaiztian gutxienez 2 aldiz urtean. Zuhaitz-txorkoan landatutako zuhaitzetan, urratze lan horrek hartuko du haren azalera osoa.

Urteko loralekuetan, parterreak belarrik izan ez dezan, gutxienez urtean 12 aldiz, hau da, hilean behin. Landare bizikorren guneetan, urtean 2 aldiz. A eta B guneetako zuhaixketan, gutxienez urtean 2 aldiz.

3.8 Mulching edo bigungarritzea

Beharrezkoa izango da birjartzea orain dauden bigungarritzeak eta egiten diren berriak (pinu azalak, inausketa hondarrak...) eta hor sartuta egongo da material hori hornitzea. Birjartzea urtean 1 gutxienez.

3.9 Ongarritzea

Udalak, behar den ongarria hornituko du, eta adjudikazioduna arduratuko da hori aplikatzen. Printzipioz, urteko loralekuak eta landare bizikorren guneak ongarrituko dira.

UDALAREN KONPOSTAREKIN ONGARRITZEA

Auzokonpostguneetan eta lorezaintza zerbitzuaren konpost-guneetan sortzen den konposta jaso, garraiatu eta erabili ahalko da, eskaintzan jasotako medioekin. Konpostak, uztailaren 8ko 824/2008 Errege Dekretuak, ongarritze produktuei buruzkoak arautzen duena bete beharko du.

3.10 Tratamendu fitosanitarioak

Izurriteak kontrolatzeko sistema bat izango du, eskuz emateko tratamenduak, termikoak, biologikoak eta azken aukera bezala, toxikotasun baxuko eta biodegradatze azkarreko produktu fitosanitarioak erabilita.

Aplikazioak egiteko langile arduradunak oinarrizko mailako edo maila kualifikatuko pestizida manipulatzailearen agiriaren jabe egon behar du.

3.11 Inaustea eta adarrak moztea

INAUSTEA: EZAUGARRI OROKORRAK

Inaustea da landare mota asko moztu eta inaustea: Zuhaixkak, zuhaitzak, hazkuntza

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

libre eta zuzenduan, eta komenigarrien den eran eta garaian egingo dute, landareak ahalik eta ondoen loratu eta indartzeko. Halaber, ezustean (bandalismoa, istripua, haizearen eraginez...) apurtutako abarrak inausiko dituzte eta iharrak kenduko dituzte.

Kasu guztietan funtsezkoa da behar bezala moztea, garbiak izango dira eta bizarrik gabe; horretarako, erabiltzen ditugun tresnek behar bezala zorrozturik eta desinfektaturik egon behar dute. Behar izanez gero, egindako zauriak osatuko dira.

Inausketak behar diren egunetan egingo dira, ez kaltetzeko espezie bakoitza. Udalak noizean behin, beste irizpide batzuen arabera har ditzake erabakiak.

TRESNAK ETA BALIABIDE OSAGARRIAK

Adjudikaziodunak halako lanak egiteko behar diren mozteko erreminta guztiak eduki behar ditu (motozerrak, aizkorak, guraizeak...), eta behar diren baliabide osagarri guztiak ere bai, hala nola, eskailerak eta plataforma jasogailua edo garabidun ibilgailua.

Inausketa lanetan eta gainerako mantentze lanetan, adjudikazioaren kontura doa lanak zuzen seinaleztatzea, eta behar diren elementu guztiak eduki behar ditu, hala nola, obra hesiak, trafiko seinaleak eta lanen informazio kartelak, eta behar den moduan egiteko behar besteko kopuruarekin.

INAUSKETAKO HONDARREN KUDEAKETA

Adjudikaziodunak inausitako adarrak Udalaren jabetzako xehamakinarekin txikitu beharko ditu konpost-guneetan egituratzaile bezala erabiltzeko eta esandako tokira eraman beharko da.

Baita ere, posible izango da, inausitako adarrak AKEIko isurtegira eraman behar izatea.

Xehamakina erabiliko duen pertsonak, era honetako makinak erabiltzeko formazioa jaso beharko du eta makina egoera onean mantentzeaz arduratuko da, beharrezko dituen mantentze-lanak eginez.

LANDARE BIZIKORRAK INAUSTEA

Espeziearen arabera, loraldiaren ostean, landare bizikorrak inausiko dituzte, hosto eta abar zaharrak kenduko dituzte, biziberritu daitezen. Kasu batzuetan, denboraldi bakoitzean loraldi bat baino gehiago dituzten espezieetan, urtean beharrezkoak diren inausketak egingo dituzte.

ZUHAIXKAK INAUSTEA

Guneetako zuhaixkak eta landareak inausiko dituzte, gutxienez urtean 2 aldiz.

Oraingo trazatua mantenduko dute, besterik adierazten ez bada.

HESKAIAK INAUSTEA

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

Metro bat baino txikiagoak diren heskai baxuak inausiko dituzte gutxienez urtean 2 aldiz, eta heskai altuak gutxienez urtean behin.

ZUHAITZEN ALDIZKAKO NEGUKO INAUSKETA

Zuhaitzak neguan inausteko aldizkako lanak Udalak kasu bakoitzean ezarritako irizpideen menpe egongo dira, hala nola, adar edo sustraiekin kalteak eragitea, fatxadatik gertu egotea edo/eta argiteria publikoan eragina izatea.

Adjudikaziodunak irailean aurkeztu beharko du zuhaitzen aldizkako inausketa plana Udalak onartu dezan, eta bertan, gutxienez, honako hauek adierazi beharko ditu:

– Inausten hasteko eguna eta lanen egutegia
– Erabili beharreko baliabide, erreminta eta seinaleak
– Hartu beharreko segurtasun neurriak
– Langileei emandako segurtasun prestakuntza

ZUHAITZETAN OINALDEETAKO KIMUAK INAUSTEA

Behar den maiztasunez kendu behar ditu zuhaitzek sortu ditzaketen adar zupatzaileak edo oinaldeko kimuak, orohar oinezkoak behar bezala ibiltzea eragotzi ez dezaten.

INAUSKETA

Behar besteko maiztasunez egingo da.

Zuhaitzak inausiko dituzte inguruko segurtasuna bermatzeko, batez ere oinezkoena edo ibilgailuena, eta argiteria publikoan, semaforoetan eta abarretan sortu ditzaketen eragina gutxitzeko. Egoera horiek antzemandakoan egingo dira, Udalari idatziz abisatu eta onarpena jasotakoan.

Inausketa lan hauek egiteko baliabideak jarri beharko dira (jasogailua, garabi-kamioia...) gutxienekoak edo eskaintzaren araberako errefortzua, eta puntualki posible bada, Udalaren garabi-kamioia.

TREPA BIDEZKO ZUHAITZ BEREZIEN INAUSKETA ETA SANEAMENDUA

San Martin zuhaiztian ale bereziak daude, lan bereziak behar dituztenak, eta esleipendunak langile espezializatuekin egin behar ditu lan horiek, edo, halakorik ez badu, azpikontratatu egin behar ditu.

3.12 Zuhaitzak kontserbatzea eta mantentzea

Adjudikaziodunak betebeharra da udalerriko zuhaitzak zaintzea, kontserbatzea eta mantentzea. Zuhaitz guztiek dute istripuak sortzeko arriskuren bat, apurtu edo erori egin daitezkeelako, eta arrisku hori handitu egiten da adinarekin eta tamainarekin. Mantentze-lanekin eta zaintzarekin arrisku maila onargarri bat lortu nahi da, zuhaitzen

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

segurtasuna tratamendu egokiarekin bateragarria egiteko modukoa.

Adjudikaziodunak zuhaitzen kontserbazioari eta mantentzeari buruzko txosten bat aurkeztu beharko du kontratuaren lehen urtean, eta bertan arreta berezia jarri beharko dio zuhaitzen egitura egoerari, apurtzeko arriskuari eta osasun egoerari, arazo edo arrisku egoerak antzeman eta erabiltzaileen segurtasuna kontrolatzeko. Hurrengo urteetan jarraipena egingo zaio, urtero, hasierako txostenean jasotakoari.

Azterlana nola egingo den jarriko da eskaintzan, analisi instrumentalerako elementuak eta neurri zuzentzaileak adieraziz.

Gainera, adjudikaziodunak berehala abisatu beharko du zuhaitzetan gorabeheraren bat izandakoan, eta txosten bat egingo du gorabeheraren arrazoiak eta hartu beharreko neurriak jasoko duena.

3.13 Birjartzea

Berriro jartzeko lanak landare iraunkorrak edo denboraldikoak ordeztu edo berritzea da, landare bizikorrak, zuhaixkak, zuhaitzak, soropilak, lehorrak edo hondatuak, ezaugarri estetikoak nabarmen gutxitu zaizkienean, edota haien egoera botaniko kaskarrak hori pentsarazten duenean. Berriro jartzea ez da urteko kanonean sartuta egongo.

3.14 Bide publikoetako loreontziak

Foruen Enparantzan, Kale Barrian, Kale Zaharrean eta Unibertsitate etorbidean zintzilik eta udaletxeko balkoietan jarrita dauden loreontzien mantentze-lanak egingo dituzte. Landaketa hauen ezaugarriak direla eta, ureztatzea hartuko da kontuan bereziki.

3.15 Auzokonpostguneen mantentze-lanak

Adjudikaziodunak auzokonpostguneak kudeatzeko eta horien mantentze-lanak egiteko agindutako lanak egin beharko ditu, eta oinarrizko lantzat joko dira materia lehorra ekartzea, konposta ateratzea, garraiatzea eta, hala balitz, banatzea.

Oñatin 8 auzokonpostgune daude:

- Ramon Irizar (Eurodenda)
- Auzabarri
- San Martin
- Ugarkalde
- ETEO
- San Lorentzo
- Errekalde
- Lizaur

Kudeaketa eta mantentze-lan horiek honakoak izango dira:

- Konpostguneen barnealdean 6 belar mozketa egitea, proposatutako egutegiaren arabera, gune hauetan saretazko zoladura dago, belarrarekin

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

- Inausketetatik ekarritako material egituratzailea hornitzea hilero, beharra baldin badago
- Konpostagailuak hustutzea eta konposta kudeatzea, udaleko teknikariaren azalpenen arabera

4. LANGILEAK

4.1 Orokortasunak

Langileak gai izango dira zerbitzua egoki emateko eta behar izanez gero prestakuntza jasoko du, zerbitzuaren berezko jarduerei buruzkoa, bai eta prebentzioari, osasunari eta lan segurtasunari buruzkoa baita ere.

Langileek, eguneroko zereginetan, arduraz eta begirune osoz jokatuko dute. Herritar batengandik erreklamazioren bat izanez gero, errespetu osoz, adeitasunez eta arretaz jardungo dute.

Administrazio eta funtzio egitura bat eduki behar du, erantzukizunez eta agintaritzaz, antolaketa segurua eta erantzulea sortzeko, lortu nahi dituen helburuei egokituta eta pleguan ezarritako dokumentazio eta informazio osoa idatzi, erabili, kontrolatu eta interpretatzeko gai dena.

Eremu publikoan ikusitako eta oinezkoentzat berehalako arriskua duten kalteen berri emango dute lehenbailehen.

Kontratazio berrien politika adierazi behar du.

4.2. Zerbitzuak emateko derrigorrezko lanpostuak

Beharrezkoa izango da **Teknikari Ordezkari** bat izatea (lizitatzaileak egoki ikusten duen lanaldian, eskaintzan adierazita) Udalaren aurrean enpresa ordezkatu dezan, zerbitzuekin lotutako guztian. Ordezkari honek erabakiak hartzeko eta horiek erabakitzeko ahalmena, legezkoa edo formala, izango du. Beharrezkoa izango da asteroko bileretara etortzea eta txostenak, azterketak, proposamenak...egitea.

Pertsona honen profila, ingeniari teknikoa (nekazaritzakoa, basogintzakoa, mendikoa edo baliokidea) izan beharko da edo bestela, antzerako lanpostuan esperientzia egiaztatua izan beharko duen teknikaria, hau da, berdeguneak, parkeak, lorategiak eta zuhaitzak zaintzen eta mantentzen esperientzia edo prestakuntza ziurtatzen duena.

Zerbitzuaren Arduradun bat ere izan behar du zerbitzua egunero antolatzeko, zaintzeko eta kontrolatzeko, baita ekipoen mantentze-lanen arduradun funtzioak betetzeko ere.

Kontratazioaren helburu diren zerbitzuak denbora egokian eta aipatutako eran egiteko, gutxienez **4 langile** proposatzen da eta beste **langile 1** sei hilabetez, lan karga handiagoa dagoen epealdirako (udaberri-uda).

Adierazi den bezala, adjudikaziodunak beharrezko langileak izango ditu kontserbazio lanak behar den moduan egiteko, eta eskaintzan zehaztuko du egin beharreko zerbitzuetako bakoitzean eta zerbitzuaren osotasunean beharrezkotzat jotzen diren lan

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

aurreikuspenen eta plantilaren proposamen xehatua. Kanona pertsonalaren ezgaitasunak eta oporrak ordezkatzen kalkulatu dira.

Oporraldietan, gaixotasunagatik lanean ez dagoenean, baimenetan, hobekuntza ikastaroetan eta abarretan, enpresak planik onena proposatu beharko du, kontuan izanda langileen antolaketa planak behar besteko plantila bat jaso behar duela, lan karga handiagoa duen epealdirako (udaberri bukaera eta uda hasiera); ondorioz, epealdi honetan langileen oporrak mugatu eta murriztu beharko ditu.

Zerbitzurako behar den plantila kalkulatzeko erabilitako metodoa zehaztuko du.

4.3. Langileen subrogazioa

Kontratistari, enplegatzaile gisa, subrogatzeko betebeharra ezartzen da, nahiz eta langileak beste kontrata batekoak izan. Kontratista berria aurrekoaren eskubide eta betebehar laboraletan eta Gizarte Segurantzakikoetan subrogatuta geratzen da, pentsio-konpromisoak barne, araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera, eta orohar, gizarte-babes osagarriari buruz bere gain hartu ahal izango dituen betebeharrei dagokionez.

Laneko gastuak ebaluatu ahal izateko subrogazioaren eragina jasango duten langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa zehaztuko da.

Une honetan zerbitzua emateko kontratatuta dauden langileen ezaugarri eta baldintzak **3. ERANSKINEAN** zehaztuko dira.

4.4. Langileen dedikazioa

Lan jardun osoko langile guztiak, zerbitzuari atxikita daudenak, kontratuaren helbururako baino ez ditu erabiliko. Lan ordutegi barruan kontratuz kanpoko beste zerbitzu batzuk egiteko, Udalaren baimena beharko da.

4.5. Betebeharrak, langileei dagokienez

Langileen baldintzak indarrean dagoen araudiari egokitzeaz arduratuko da kontratista. Bete ezean, kontratistaren erantzukizuna izango da.

Agiri honetan eta hurrengo adjudikazio kontratuan helburu diren zerbitzuak emateari atxikitako langileek ez dute izango lan harremanik Udalarekin, kontratuaren indarraldian ezta kontratua iraungi edo amaitutakoan ere.

4.6. Komunikazioak

Adjudikaziodunak komunikazio sistema bat izango du, lanaldian zerbitzuaren arduraduna lokalizatzeko moduan.

Bestalde, larrialdietarako telefono bat izango du beharrezko diren abisuei, erreklamazioei eta jarraibideei erantzuteko; zerbitzua lan jardun guztietarako izango da beharrezkoa, bai lan egunetan bai jai egunetan.

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

Gainera, adjudikaziodunak helbide elektroniko bat eman behar eta irekita mantenduko du, Udalaren harremanetarako.

4.7. Langileen ordezkapenak

Oporraldietarako, gaixotasuna duelako, baimena duelako, prestakuntza ikastaroetarako eta abarretarako planik onena proposatu beharko du enpresak.
Lizitatzaile bakoitzak argi eta garbi adierazi beharko du, gaixotasun eta oporretan bere langileak ordezkatzen dituen edo ez.

Ordezkapenak eginez gero, ordezkatu beharreko langilea ordezkatuko du haren kualifikazioa duen beste batek.

Adjudikaziodunak informatu egin beharko du 24 ordu igaro baino lehen, baja bat gertatzen denean. Udalaren eta kontratistaren artean erabakiko dute noiztik izango den langilearen ordezkapena, kontuan izanik ordezkapena izan den egunak konpentsatu egin daitezkeela, Udalak hala erabakitzen duen eran (diruz, landareak hornituz edo beste lan batzuk eginez).

Teknikari Ordezkaria behin betiko aldatu edo ordezkatuz gero, adjudikaziodunak aldaketa proposatuko dio Udalari idatziz eta nahiko denboraz, eta proposatutako pertsonaren curriculuma erantsiko du, eta honek ordezkatuaren ezaugarri antzerakoak izan beharko ditu.

Kontratuaren iraupenean zehar, zerbitzuaren langile taldean hutsuneren bat (borondatezkoa, jubilazioa...) sortuz gero, Udalak erabakiko du lanpostua amortizatzea edo langilea ordezkatzea eta bere kasuan, kontratuaren kostuaren erregularizazioa egin beharko da.

Hilero aurkeztuko du lan egoeraren laburpen bat, istripuzko bajak, gaixotasun, absentismo bajak.

4.8. Uniformetasuna

Zerbitzuari atxikitako langileak behar bezala uniformatuta egon behar dute, zerbitzuak ematean identifikatzeko eta Laneko Arriskuen Prebentzio araudiak eskatutako segurtasun eta babes baliabideekin.

Jantzi kopurua eta kalitatea uneoro indarrean dauden hitzarmen kolektiboek zehazten dutena izan beharko da.

4.9. Ordutegia

Adjudikaziodunak, bere eskaintzan, ordutegia adieraziko du, eta kontuan hartuko du ezingo duela lanaldia hasi goizeko 7:00ak baino lehen, ez eta 22:00ak baino geroagoa bukatu ere, zaratarik ez ateratzeko.

Zerbitzua adjudikatu eta hasi baino lehen, lan ordutegia onartuko du Udalak.

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

Udalak zenbait ekipo erabiltzea mugatu dezake programatutako lanetan, edo baldintzatu dezake horien erabilera denboraldi batean, lan batean edo ordutegi batean erabiltzeko.

4.10. Urgentziak, haizeteetan, elurteetan

Elurte edo izozte handiak izanez gero, udal zerbitzu teknikoek ezarriko dituzte eman beharreko zerbitzuak, eremuak eta gainerako xehetasunak. Kasu horretan, kontratako langileak Udalaren esanetara egongo dira, lorategietako mantentze zerbitzuarenak ez diren lanetarako ere bai.

Egoera bereziak edo ustekabekoak ematen direnean (istripuak, haizeteak...), zuhaitzek eragiten duten segurtasun publikoa mantendu eta ezartzeko behar diren premiazko eta segurtasunezko lan bereziak egingo dituzte.

4.11. Aldi baterako ezintasun egoeren ondorioz urteko erregularizazioa

Urtez urte kontratistak Udalari konpentsatuko dio (Udalaren erabakiaren arabera), ordezkatu gabeko pertsonal gabezien ondorioz, aurreztu izandako kopurua.

5. MATERIALA ETA MAKINAK

5.1. Orokortasunak

Zerbitzuan sartzen dira lanak egiteko kalitate onena lortzeko beharrezko diren teknika eta tresneria guztiak. Sistema horiek, ahal dela, mekanikoak izango dira eta zehatz-mehatz deskribatuko dira eskaintzan.

Zerbitzua egoki emateko beharrezko makineria eta ekipo guztiak izan beharko ditu adjudikaziodunak.

Kontratuan ipiniko diren baliabide material eta mekanikoak adjudikaziodunaren jabetzakoak izan daitezke edo bestelako merkataritza-alokairu edo finantziero bidez lortutakoak. **Edozein kasutan, eskaintzan garbi geratu beharko da zerbitzua emateko erabiliko den makineria eskuratzeko modalitatea (kontratistaren jabetzakoa, amortizagarria, alokatua...).**

Adjudikaziodunaren kontura izango dira mantentze, kontserbazio gastuak, nahitaezko azterketak, aseguruak...

Makina guztiek beraien erabilerarako behar diren baldintzak bete beharko dituzte, eta indarrean dagoen araudiak zarata (zarata gutxiko makineriaren erabilera), kutsadura eta segurtasun aldetik ezarritakoa bete beharko dute. Bereziki, ibilgailuak eta tresnak erabiltzeko moduaren araberako zaratak zainduko ditu enpresa esleipendunak, debekatuta egonik klaxona edo beste edozein gailu akustiko herrigunean erabiltzea.

Jardueren edo zerbitzuen ondorioz sortzen dituen hondakin arriskutsuak eta bizigabeak eraman eta zuzen kudeatzearen ardura izango du enpresak.

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

Memorian zehaztu beharko du zer erregai mota erabiliko duen, olioak, koipe lubrifikatzaileak, eta abar.

5.2. Makineriaren eskuratze aukerak

Lehen esan bezala, kontratuan ipiniko diren baliabide material eta mekanikoak adjudikaziodunaren jabetzakoak izan daitezke, edo bestelako merkataritza-alokairu edo finantziero bidez lortutakoak.

Aukeratutako formulak amortizazio beharra sortuz gero, amortizazioaren iraupena urteetan azaldu beharko da eta kontratuaren iraupena (4 urte luzapenak barne) baino luzeagoa bada, atal ekonomikoan aurkeztu beharko da eskaintza ekonomiko bat Udalak makineria hori erosteko aukera izan dezan**. 4. ERANSKINA**

5.3. Materialaren, ibilgailuen eta makinen esklusibitatea

Lizitatzaileak bere eskaintzan adierazi beharko du kontratuan ipinitako materialaren esklusibitatea edo ez. Edozein kasutan, kontratuari %100ean atxikitako makineria ezingo da erabili kontratuz kanpoko beste zerbitzu batzuetarako, Udalaren agindu edo baimenik ez bada.

5.4. Zerbitzuari atxikitako lehengo makineria

Aurreko lorezaintza kontratutik baliabide mekaniko hauek eskuratu ditu Udalak:

	EROSKETA URTEA	MATRIKULA	Ordu / Km	AMORTIZAZIO EGOERA
RENAULT MAXITY	2015	1344 JMS	100.733 km	Amortizatua
PIAGGIO PORTER	2015	4199 JJS	111.828 km	Amortizatua
HUSTLER TRIMSTAR	2015		1.446 ordu	Amortizatua
...				

Ordu / Km: 2026.eko urtarrileko datuak

Baliabide hauek lizitatzaileak errebisatzeko aukera dago, eta lizitatzaileak horrela erabakiz gero, kontratu berrian sartzeko aukera izango du. Interesdunen batek interesa izanez gero horiek berraztertzeko, harremanetan jarri beharko da Udaleko Zerbitzu Teknikoekin errebisioa nola egin koordinatzeko.

Kontratu berrian baliabide hauek erabiliko diren edo ez argi eta garbi agertu behar da eskaintzan.

5.4. Tresnak eta gainerako materialak

Adjudikaziodunak kontratatutako zerbitzua ondo betetzeko beharrezko diren orgak eta tresnak jarri beharko ditu, eta beraz, dagozkien ordezkoak izan beharko dituzte sor daitezkeen gorabeherei aurre egiteko.

Era berean, bide publikoan lan egiten duten langileen eta herritarren segurtasuna bermatzeko babes eta seinaleztapen neurri guztiak izan beharko ditu bere kargura.

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

5.5. Makineria zerbitzuan hasteko epea

Baliabide mekanikoak gehienez ere 10 eguneko epean izan beharko dira zerbitzurako erabilgarri, berriak izan ezik; horiek gehienez ere hiru hilabeteko epea izango dute erabilgarri egoteko.

Kasu bakoitzean zerbitzuaren kostu ekonomikoa egokituko da, makinaria inkorporatu ahala.

5.6. Makineria ordeztea

Matxurarik edo beste edozein gorabehera izanez gero, 24 ordu baino lehenago jakinarazi beharko da, eta makineria 7 egun baino lehenago ordeztu.

Kontratista behartuta dago, bere kontura eta inolako diru ordainik gabe, kontratan sartutako eta lapurtu dutelako, matxuratu edo hondatu delako, baja izan den edozein makina berriz ere jartzera.

5.7. Inbentarioa

Kontratistak, zerbitzua abian jarri eta 3 hilabetera, zerbitzuari azkenean atxikitako makineriaren eta tresnen inbentarioa aurkeztu behar du, eta eguneraturik eduki behar du inbentario hori.

Zerbitzuak ematen bukatzen duen eguna baino 3 hilabete lehenagoa, gutxienez, bukaerako inbentario bat egingo du, eta adieraziko du zer nolako egoeran dagoen elementu bakoitza. Hasiera-hasierako inbentarioan agertzen ziren elementuak entregatu beharko ditu kontratistak, edo haien ordeztu dituztenak.

5.8. Makineriaren mantentzea

Kontratistaren ardura izango da beharrezko mantentze lanak egitea, makineria egoera onean egon dadin.

Adjudikazioduna behartuta dago kontratu honetarako den material guztiaren prebentzioko mantentze plan bat aurkeztera, eta zehaztuko ditu koipeztatze lanak, berraztertze lanak, kanpoko garbiketa lanak, barrualdeko garbiketak, eta egin beharreko gainerako aldizkako lanak.

Makinerian eta ibilgailuetan egindako hiruhileko mantentze-lanen orri bat aurkeztuko du, bai eta detektatutako matxurak eta gorabeherak ere.

Makinen mantentze lanak egingo ditu indarrean dauden arauen arabera.

5.9. Makineriaren identifikazioa eta errotulazioa

Erabili beharreko material guztiak, beraien ezaugarriek hala uzten badute, atean edo ikusteko moduan, Udalak ezarritako diseinuaren arabera margotutako inskripzioa eraman beharko dute zerbitzuarekiko identifikazioa zalantzarik gabekoa izan dadin.

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

6. INSTALAZIOAK

Kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, eta eman beharreko zerbitzuak ondo funtzionatuko duela bermatzeko, enpresa esleipendunak behar besteko instalazioak izan beharko ditu Oñatin kontratu honen betebeharrak betetzeko bulego, aldagela, biltegi eta zerbitzuko ibilgailuen garaje (konpontze eta mantentze lanak egin, garbitu, desinfektatu, gorde, zaindu eta abar egiteko) aldetik.

Lokalaren kokapena eta ezaugarri nagusiak adierazi beharko dira eskaintzan.

Eskaintza aurkezteko unean instalaziorik eduki ezean, konpromisoa hartuko du horiek lortzeko kontratua hasteko egunerako.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira lokala egokitzeko gastu guztiak eta baita funtzionamendukoak (ura, argia, telefonoa, gasa...), tasak, aseguruak, lizentziak eta abar ere.

Lokalek laneko segurtasunari eta higieneari buruz indarrean dagoen araudia bete beharko dute, eta baita isurketei, ibilgailuen garbiketari, jarduera gogaikarri eta osasungaitzei eta abarrei buruzko araudiak ere.

Lizitatzaile bakoitzak adierazi beharko du aurreikusitako instalazioak lehiaketako helburuarentzat bakarrik diren edo beste zerbitzu batzuekin partekatu behar diren. Partekatzea balitz, egoera hori kontuan izan beharko da instalazioak sortutako kargak banatzerakoan.

7. KONTROL SISTEMAK

Adjudikazioduna izango da zerbitzuaren kalitatearen zuzeneko arduraduna, eta uneoro kontrolatuko ditu, proposatutako sistemaren bidez, zerbitzuarekin lotutako alderdi guztiak. Eskaintzan aurkeztu beharko da lanen kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko zerbitzuaren kontrol plana edo sistema, non

proposatutako neurriak definitu beharko diren, eta ahalik eta zehatzen deskribatu beharko diren jarduera moduak, ikuskapenen eta, hala balegokio, neurri zuzentzaileen emaitzak jasotzeko metodoa, baliabideak eta kontrolaren arduradunak.

Kontrol plana edo sistema baloratu egingo da, bereziki, zerbitzuen maiztasunari eta horien kalitatea betetzen dela kontrolatzeari eta bermatzeari dagokienez, baina, beste kontu batzuk kontrolatzeko ere erabili ahal izango da.

Gainera, kontratatutako zerbitzuak Udalaren ikuskaritza eta zaintzapean egongo dira, uneoro, zerbitzua kontrolatzeko eta, orokorrean, zerbitzua ematerakoan kalitate helburuak eta ezarritako ingurumen-jasangarritasun parametroak betetzen direla egiaztatu eta bermatzeko.

Zerbitzuaren ikuskaritzak egindako txostenak ikusita, Udalak zehaztuko ditu zerbitzuaren antolaketan eta prestazioan egin daitezkeen zuzenketak edo aldaketak, derrigorrezkoak izango direnak adjudikaziodunarentzat. Horretarako, emaitza onak

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

berehala ematea ahalbideratuko duten tresna oso arinak aurreikusi beharko dira.

Adjudikazioduna behartuta egongo da ere kontrata honen zerbitzuekin lotuta Udalak eskatu bezainbeste txosten eta azterlan prestatzera.

7.1. Lan parteak

Behin zerbitzua martxan jarrita, enpresa esleipendunak aldizka aurkeztu beharko ditu, euskarri informatikoan, ondorengo lan-parte edo txostenak:

a. Berehalako partea (24 orduko epean)

- Makineriaren matxurari edo langileen "Aldi baterako Ezgaitasun Iragankorrari" buruzko gorabeheren berri emateko

b. Hileroko partea

- Lanak kontrolatzeko partea, eremu bakoitzean egindako lanak, langileak eta denbora jaso beharko du
- AKEIra eramandako landare hondakin kopurua (kg)
- Gorabeherak, matxurak, ureztatze sarean egindako konponketak
- Lan egoeraren, istripuz izandako bajen, gaixotasun bajen eta absentismoaren laburpena
- Makineriari eta ibilgailuei egindako mantentze lanak eta antzemandako matxurak eta gorabeherak

7.2. Txostenak

Urtero aurkeztu beharreko txostenak honako hauek:

- Kontratuaren lehen urtean, zuhaitzen zaintza eta mantentzeari buruzko txostena
- Inausketa plana: egunak, baliabideak, segurtasun neurriak
- Oporretako plana
- Makineriaren eta gainerako tresneriaren inbentarioa
- Urteroko berdegunetako loraleku, kaleko loreontzi eta udaletxeko balkoietan birjartzen diren landareen balorazioa
- Ureztatze programarako urteko plana: guneak, dosiak, maiztasuna, orduak
- Lore eta landare bizikor guneak ongarritzeko plana
- Tratamendu fitosanitarioen beharrei buruzko azterlana

8. INGURUMENEKO GAIAK

8.1 Nahitaez betebeharreko ingurumeneko gaiak

MATERIALAK ETA ONTZIAK

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

Produktuen ontziei dagokienez, horiei buruz indarrean dagoen araudia beteko dute, eta egongo dira behar bezala etiketaturik, bildurik eta behar diren dosifikazio aparatuak izan beharko dituzte.

Erabili beharreko materialek ez dute sortuko kutsadurarik ingurumenean ez eta hondakin uretan ere, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Ibilgailuen eta makinen mantentze operazioak egingo dituzte indarrean dagoen araudiaren arabera.

ZARATAK

Makineriak 86/188/EEC Europar Zuzentaraua bete beharko du, laneko zaratak sortutako arriskuen aurrean langileen babesari buruzkoa. Ezingo da gainditu ponderatu gabeko momentuko presio akustikoaren 90 dBA.

Lan ordutegia mugatu egin da:

7:00-22:00

IBILGAILUEN GAS EMISIOAK

Ibilgailu erosi berriek gas isuriei buruzko indarrean dagoen EURO 6 araudia bete beharko dute.

HONDAKIN ARRISKUTSUAK

Jarduerak garatzean sortzen diren ongarri eta plagizida ontzien hondakinetarako erabilitako kudeaketa sistema aipatu behar du lizitatzaileak, eta hala badagokio, hondakin horiek kudeatzeko baimendutako kudeatzaile baten azpikontratazioa egiaztatu beharko du.

Ibilgailuen eta makinen olio lubrikagarriak eta beste produktu batzuk bereizita jaso edo bilduko dituzte eta kudeatzaile baimendunaren bidez kudeatuko dituzte.

BESTE HONDAKIN BATZUK

Gainontzeko hondakinetarako, landare ez direnak eta arrisku-gabeak gaikako bilketa frakzioetan bereiziko dituzte eta adierazitako tokira eramango.

TRATAMENDU FITOSANITARIOAK

Produktu fitosanitarioak erabiltzeak arriskuak dakartzanez, mugaturik egongo da ahalik eta gutxien erabiltzeko Oñatiko berdeguneetan, eta izurriteak, prebentzioarekin, tratamendu ekologikoekin edo/eta borroka biologikoarekin kudeatzea sustatuko da.

ONGARRITZEA

Ez da onartuko ongarri kimikoak erabiltzea, ongarri organikoak eta konposta erabiltzea

SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

baizik.

URETZATZEKO URA

Ureztatzeko uraren kudeaketa egokia egingo dute eta arau orokor moduan berdeguneetan jarrita dauden ureztatze automatikoko sistemen bidez ureztatuko dute eta instalazioen mantentze egokia egingo dute; urteko ureztatze-plana onartuko da.

EKS | CSV: SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	PLEGU TEKNIKOA
CSV/EKS:	SINA8dcd7180-da41-43a7-87cc-1e101d52741c

Digitalki sinatua:

Jessica Valencia Caceres
Azpiegituretako aparejadorea
Data: 2026/06/11 14:28:59